

10 MP SARIAREN OINARRIAK

1. Helburuak

Gipuzkoan eta, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan berrikuntzaren —nola teknologikoa hala ez-teknologikoa— garapena hobetzeko eta sustatzeko, izpiritu ekintzailea eta sormena sustatzeko, erakundeek, Gipuzkoako eta EAEko gizarteak, eta gure ekonomiak lehen, bigarren eta hirugarren sektorean duten lehiakortasuna hobetzeko, eta euskal gizarte osoaren oraingo eta etorkizuneko bizitza hobetzeko, **Gipuzkoa Berritzenek, Innobasque Berrikuntzarako Euskal Agentziaren** Kontseilu Atxikiak (aurrerantzean, **Gipuzkoa Berritzen**) The Ten Million Project (10 MP Saria) sustatzen du. Horren helburuak hauek dira:

- Pentsamendu berritzailea sustatzea eta laguntzea.
- Mugarri eta erreferentzia nabari bat eratzea, berrikuntzaren esparruan diren ekimenak hedatzeko eta ezagutarazteko.
- Gipuzkoa berrikuntzarekin identifikatzeko tresna bat eratzea.
- Izpiritu eta gaitasun berritzaileak publikoki aitortzea.
- Ekimen, jarduera eta proiektu berritzaile nagusiak sustatzea, erraztea eta laguntzea, onena saritzen dela.
- Saritutako proiektua gauzatzen, abian jartzen, egikaritzen eta garatzen laguntzea.

Berrikuntzaren esparruko eragileen potentzialtasunak mobilizatzeko gai diren berrikuntza- eta garapen-jardueretarako 10 MP Sariaren erregimena ezartzeko,

Oinarri hauek onartzen dira. Horietan, aipatu Sariaren edukia, onuradunak, prozedura, balorazio-irizpideak eta erregimen ekonomikoa arautzen dira.

2. Helburua

Oinarri hauen helburua 10 MP Sariaren erregimena ezartzea da, Oinarri hauekin bat datorren epean eta forman aurkezten den eta horretarako eraturako Epaimahaiak sariaren duin jotzen duen proiektu berritzaile onena saritzeko, ezagutzeko eta laguntzeko.

10 MP Sariaren deialdira aurkezten diren proiektuek Gipuzkoa berrikuntzaren mapan kokatzen duen erreferentziazko proiektu bihurtzea izan behar dute helburu, eta, horretarako, honako irizpide eta parametro hauek jarraitu behar dituzte:

* Gauzagarriak eta berez irauteko gai izan behar dute, eta negozio-planaren eta bideragarritasunaren aurreikuspen bat aurkeztu, hipotesi sendo batzuetan bermatuta.

* Balio berritzaile batzuen lorpena aurkeztu eta frogatu beharko dute; balio horiek balioa sortzen duen aldaketa bat ekarri behar dute, zeina kultura berritzaileko prozesu batean egongo den txertatuta.

* Gipuzkoako gizartearen gaineko efektu garrantzitsu bat aurkeztu beharko dute, lurraldea berrikuntzarekin identifikatzen laguntzeko, kohesio-, jasangarritasun- eta oparotasun-irizpideekin batera beti ere.

* Inpaktu positibo eta esanguratsu bat frogatu behar dute, Gipuzkoan lanpostuak eta ezagutza sortzeari, aberastasuna ekartzeari eta birbanatzeari, eta eskualde arteko desorekak murrizteari dagokienez.

* Behar adinako dimentsioko proiektuak izan behar dute.

* Modu positiboan baloratuko da proiektuan erakunde mota desberdinek (enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, finantza-erakundeak, etab.) parte hartzea, kolektibo desberdinek parte hartzea eta sinergiak aprobetxatzea.

* Bideragarriak izan behar dute sozioekonomikoki eta ekologikoki. Ingurumenarekiko errespetua izan behar dute, eta jasagarriak izan; ahalik eta eraginik txikiena izan behar dute ingurumenean, energia-aurrezteko, ez kutsatzeko eta natura kontserbatzeko irizpideei jarraitzen dietela, eta giza garapenari lagundu behar diote.

* Nazioartekotzeko gaitasuna izan behar dute, eta beste ingurune batzuetara aldatzekoa, beti ere Gipuzkoako ekonomiaren gaitasuna indartzen dutela.

3. Onuradunak

Honako hauek izan daitezke 10 MP Sariaren onuradun: pertsona fisikoak (banako enpresariak edo ez-enpresari nahiz ez-profesionalak), eta pertsona juridikoak, edozein dela ere haien pertsonifikazio mota (merkataritza-sozietateak, elkarteak, fundazioak, etab.), betiere ondorengo Oinarrian ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean dioenaren arabera, sektore publikoko zati ez badira. Baldintza hori gorabehera, proiektua gauzatzeko proposatzen den taldean, ari daitezke halakotzat definitutako erakundeak ere, baina inola ere ezingo dira izan Sariaren onuradun zuzenak.

4. Onuradunen baldintzak

Aurrekoek gainera, 10 MP Sariaren onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- Zerga-betebeharrak beteta edukitzea, bai foru-zergetan, bai toki-zergetan, bai, hala badagokio, Estatu-zergetan edo dagozkionetan, aipatu betebeharren betetzean egunean egotearen ziurtagiria aurkezten dela jarduerarik denean,

edo, pertsona fisiko ez-enpresari edo ez-profesionalen kasuan, PFEZn egunean egotearen ziurtagiria.

- Banako enpresarien edo pertsona juridikoen kasuan, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta edukitzea, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituztela ziurtatzen duen ziurtagiria aurkezten dutela, edo, bestela, Gizarte Segurantzaren ziurtagiri bat erakutsita, non eskatzailea Gizarte Segurantzaren Erregimene bateko kide ez dela ziurtatzen den, eta eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin inongo zorrik ez daukala.

5. Sariak

Sariak honako elementu hauek ditu:

- 40.000 euroko diru-hornidura, horretarako eraturako **Epaimahaiak**, dokumentu honetan araututakoarekin bat, Saria merezi duela jotzen duen proiektuarentzat.
- Gipuzkoa Berritzenek hitzematzen du eskura dituen lan eta urrats guztiak egingo dituela saritutako proiektua sustatzeko eta haren gauzapena bultzatzeko, kideak eta bestelako laguntzak bilatzen lagunduz, edo aholkularitza aditua eskainiz negozio-plan bat egiteko, Saria erabakitzen den unetik zenbatzen hasita urtebeteko epean (epe hori Gipuzkoa Berritzenek nahi badu luza daiteke, proiektuaren bilakaeraren arabera, etab.).
- Gainera, Sariaren irabazleak aitorten bat jasoko du Gipuzkoako Berrikuntzaren Afarian.

Epaimahaiak, aurkeztutako proiektuak ikusita, Saria eman gabe uztea aukera dezake.

Epaimahaiak beste sari gehigarri batzuk emateko eskubidea gordetzen du beretzat.

Sari honen ikuspegitik, saria helburu bereko beste sari, diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarria izango da, horiek Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismoetako edozein administraziok, erakunde publikok edo pribatuk eman baditu. Aurkeztutako proiektuak Sari hau lehenagoko beste edizioen batean jaso duen kasua salbuesten da hor.

6. Sariaren esleipena

6.1. Publizitatea

10 MP Sariaren deialdia Gipuzkoa Berritzenen web gunean (www.gipuzkoaberritzen.net) argitaratuko da.

Gipuzkoa Berritzenek eskura dituen eta egokitzat jotako baliabide guztiak erabiliko ditu Sariaren emaitzak eta irabazleak prentsan, irratan, telebistan eta interneten ezagutarazteko.

6.2. Proiektuen aurkezpena

Proiektuak web gunearen bidez aurkeztuko dira, derrigorrezko dokumentazioarekin batera, edota eskura emanda nahiz posta ziurtatuz bidalita, Gipuzkoa Berritzenen bulegoetan, honako helbide honetan: «Gipuzkoa Berritzen. Mikeletegi pasealekua, 56, 301 bulegoa, 20009 - Donostia», 2011ko urriaren 24ra arte. Entrega eskura eta adierazitako bulegoetan egiten bada, aipatu datako 17:00ak baino lehen egin beharko da.

Proiektua eta dokumentazioa posta ziurtatuz bidaltzen baditu, bidalketa posta-bulegoan ezarri duen data zuritu behar du bidaltzaileak, eta Gipuzkoa Berritzeni ere jakinarazi behar dio, posta elektronikoz, bidali duela eskaera, gipuzkoaberritzen@innobasque.com helbidera, edo, telefonoz (943 30 94 32), egun horretan bertan.

Ez badira bi baldintza horiek betetzen, edo bidalketaren jakinarazpena ezarritako epea igarotakoan jasotzen bada, proposamena ez da onartuko.

Dena den, adierazitako dataren ondoren zortzi egun natural igarotakoan oraindik ez bada proiektua jaso, ez da inolaz ere onartuko.

6.2.1. Dokumentazioa eskura entregatzea edo posta ziurtatuz bidaltzea

Dokumentazioa bi gutunazal sinatutan eta itxitan aurkeztu behar da.

Horietako lehena «1. gutunazala» gisa aurkeztu behar da, eta «ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIOA» deitu behar zaio; honako hauek eduki behar ditu:

- Dagokion identifikazioari buruzko eranskina, Oinarri hauen bukaeran I., II. eta III. Eranskin gisa adierazten direnetatik, behar bezala beteta eta partaideak/ek sinatuta.
- Nortasun fisikoa edo juridikoa eta, hala badagokio, ordezkaritza ziurtatzen duten dokumentuak; honela:
 - o Eskatzailea pertsona fisiko bat bada, Nortasun Agiria edo baliokidea.
 - o Pertsona juridikoak badira, eraketa-idazpena edo -dokumentua, estatutuak edo sorrera-akta. Horietan, beren jarduera arautzen duten arauak agertu behar dute, hala badagokio, dagokion Erregistro publikoan behar bezala inskribatuta, pertsona juridiko motaren arabera. Halaber, beren izenean Eranskinean sinatzen duten pertsonaren edo pertsonen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa.
- Sariaren onuradun izateko eta dokumentu honetako 4. Oinarrian arautzen diren baldintzen agiri bidezko justifikazioa; hau da:
 - o Zerga-betebeharretan egunean egotearen ziurtagiria, jarduerarik

denean, edo, pertsona fisiko ez-enpresari eta ez-profesionalen kasuan, PFEZn egunean egotearen ziurtagiria.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharren betetzean egunean egotearen ziurtagiri bat, edo, bestela, Gizarte Segurantzaren ziurtagiri bat, non eskatzailea Gizarte Segurantzaren Erregimenen bateko kide ez dela ziurtatzen den, eta eskatzaileak Gizarte Segurantzarekin inolako zorrik ez daukala.

Bigarren gutunazala «2. gutunazala» gisa aurkeztu behar da, eta «PROIEKTUA» deitu behar zaio. Hor jasoko dira partaideek proiektua behar bezala aurkezteko eta baloratzeko egokitzat jotzen dituzten dokumentu, elementu grafiko eta bestelako osagai guztiak.

Horiez gainera, 3 orri baino gutxiagoko laburpen exekutibo bat aurkeztu behar da proiektua deskribatzeko, proiektuaren alderdi nabarmenenekin.

Gutunazal horretako eduki guztia paperean eta euskarri digitalean entregatu behar da.

Dokumentazio guztiak gaztelaniaz edo euskaraz idatzita egon behar du. Beste hizkuntzaren batean aurkeztuz gero, itzulpen ofiziala ere erantsi behar da.

Gutunazal guztien kanpoaldean, zein gutunazal den (1.a edo 2.a) eta haren izena («ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA» edo «PROIEKTUA») adierazteaz gainera, proiektuaren titulu bat adieraziko da soilik, eta proiektuaren egilea identifikatzen uzten ez duen helbide elektroniko bat. Hori bi helbururekin egiten da: batetik, bidaltzailearen anonimatua gordetzea; bestetik, 2. gutunazalari buruz beharrezko zuzenketak edo azalpenak eskatu ahal izatea, anonimatuan eragin gabe.

Gutunazal bakoitzaren barruan, orri bereizi batean, edukia adierazi behar da, behar bezala zerrendatuta.

6.2.2. Dokumentazioa web gunearen bidez bidaltzea

Web guneko (www.the10millionproject.com) «Proiektuaren aurkezpena» atalean adierazitako irizpideei jarraitu behar zaie, eta atal horretan adierazten den dokumentazio guztia bidali behar da, honako hauek kontuan hartuta:

- Dokumentazioa bidaltzeko eta kontaktu gisa erabiltzen den helbide elektronikoak ez du proiektuaren egilea identifika dezakeen inongo elementurik eduki behar.
- Bidaltzen diren proiektu guztiek aurkezten den proiektuari esleitutako izenarekin hasi behar dute (*adibidez, deskargatzen den dokumentua «Pertsona fisikoentzako identifikazio-eredua» bada eta proiektuaren izena «proba» bada, ordenagailuan gordetzean «proba_pertsona fisikoentzako identifikazio-eredua» gisa gorde behar da, eta izen horrekin bidali, adierazten den helbide elektronikora*).

6.3. Epaimahaia

Epaimahaia gutxienez 10 pertsonakoa eta gehienez 15ekoa izango da. Gipuzkoa Berritzenean izendatuko ditu pertsonok, Batzorde Exekutiboko kideen edota horren lan-taldeetako buruen artean. Epaimahaiak proiektuaren arloan/gaian aditua den pertsonaren bat hartzeko aukera du, egokitzat jotzen badu.

Epaimahaiaren osaketa zehatza 2011ko urriaren 24an argitaratuko da, www.the10millionproject.com web gunean.

6.4. Prozedura

6.4.1. 2. gutunazalean («PROIEKTUA») jasotzen den dokumentazioaren kalifikazioa

Proiektuak jasotzeko epea bukatutakoan, eta Epaimahaia eraturakoan eta osaturakoan, horrek «PROIEKTUA» deritzon atalaren edukia baloratuko du, jarraian adierazten den prozedurari eta Oinarri hauetan ezarritako balorazio-irizpideei jarraituta.

Aurkeztutako proiektuen egileen anonimatua gorde behar da beti prozedura osoan zehar, eta Epaimahaiak ez du eskuragarri izan behar 1. gutunazaleko (itxita mantendu behar da) administrazio-dokumentazioa edo posta elektronikoz bidalitako dokumentazioa. Azken hori idazkaritza teknikoak gordeko du.

Epaimahaiko kide guztiei, proiektuak baloratzeko lehen bilera baino lehen, haien kopia bana emango zaie, osorik.

Lehen fase batean, Epaimahaiak proiektuak baloratuko ditu, dokumentu honetako 6.5 Oinarrian eta lehen paragrafoan zehazten diren irizpideen arabera soil-soilik, eta, horretan oinarriturik, 10 proiektu hautatuko ditu gehienez ere, gainerakoak kanpo utzita.

Bigarren fase batean, Epaimahaiak hautatutako proiektuak baloratuko ditu, dokumentu honetako 6.5 Oinarrian eta bigarren paragrafoan ezartzen diren irizpideei jarraituta, eta dagozkion puntuak esleituko ditu, irizpide horien arabera. Egokitzat joz gero, epaimahaiak proiektuaren sustatzaileei deituko die, beren proiektua azal eta defenda dezaten.

Puntu gehien eskuratu dituzten proiektuen artean berdinketa gertatuz gero bakarrik hautsi beharko da berdinketa; kasu horretan, dokumentu honetako 6.5 Oinarrian eta hirugarren paragrafoan zehazten diren irizpideei jarraitu behar zaie, eta berorien arabera esleitu behar dira puntuak.

Epaimahaiak, deskribatu ditugun lanak garatu ondoren, irizpen bat emango du, eta proiektu irabazlea definituko, eta, sari gehigarrien kasuan, horiek irabazi dituzten proiektuak zehaztuko ditu, eta, hala badagokio, bere iritzian aipamen berezi bat

merezi duten proiektuak ere bai.

Epaimahaiak, gero, azalduko du zergatik pentsatzen duen aukeratutako proiektua dela saritu beharrekoa, eta gauza bera egingo du sari gehigarrietarako aukeratutako proiektuen kasuan ere. Bileren nondik norakoak ere dokumentu batean jasoko dira. Dokumentazio hori sekretua izango da.

6.4.2. 1. gutunazalean («ADMINISTRAZIO DOKUMENTAZIOA») jasotzen den dokumentazioaren kalifikazioa

Epaimahaiak dagokion irizpena eman ostean, Gipuzkoa Berritzenek 1. gutunazala irekiko du, edo, halakorik ezean, posta elektronikoz bidalitako eta «ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA» deritzon dokumentua irakurriko, aurkeztutako proiektu guztiei dagokiena.

Halaber, aukeratutako proiektuari dagokion gutunazaleko dokumentazioa kalifikatuko du, eta gauza bera egingo, gero, sari gehigarrietarako aukeratutako proiektuarekin, betiere dagokion denboran eta forman aurkeztu bada.

Akats edo huts konpongarririk ikusiz gero, gehienez ere hiru egun balioduneko epea emango dio parte-hartzailerik, dagokion jakinarazpenetik zenbatzen hasita, hark akats edo huts horiek konpon ditzan.

6.4.3. Esleipena

Gipuzkoa Berritzeneko dagokion organoak esleituko dio Saria Epaimahaiak irabazle aurkitu duen eta onuradun izateko baldintzak betetzen dituen proiektuari. Gauza bera egingo da esleitezkeen sari gehigarrien kasuan.

Une horretan Sariaren eta izan litezkeen sari gehigarrien irabazleen identitatea jakinaraziko da. Halaber, Sariaren esleipendun ez izanez gero beren anonimata gorde dadin berariaz adierazi ez duten partaideen identitatea ere jakinaraziko da.

Esleipena Gipuzkoa Berritzenen web gunean argitaratuko da, eta Sariaren irabazleari jakinaraziko zaio; sari gehigarrien irabazleei ere jakinaraziko zaie.

6.5. Esleipenerako irizpideak

Proiektuen hasierako balorazioa dokumentu honetako 6.4.1 Oinarrian xedatutakoarekin bat egingo da, eta ezin izango ditu 10 proiektu baino gehiago aurreaukeratu. Balorazio hori honako irizpide hauen arabera egingo da soilik:

- Proiektuaren bideragarritasuna.
- Proiektuaren erakargarritasun maila.

Aurrez aukeratutako 10 proiektuak baloratu egingo dira, honako irizpide hauetan oinarrituta:

- desberdinen arteko lankidetzeta eta hainbat kolektiboren partehartzea maila. Proiektuarekin erlazionaturiko erakundeen arteko konpromisorik, lankidetzarik eta loturarik handiena saritu nahi da:

100 punturarte.

Proiektuaren dimentsioa eta Gipuzkoan lanpostu berrien, aberastasunaren eta ezagutzaren sorrera bultzatzeko potentziala.

50 punturarte.

- Proiektuak sektore, kolektibo desberdinen gain daukan eragina Proiektuak ahalik eta jarduera-sektore gehienengan eragina izatea eta ahalik eta agente tipo gehien barneratzea saritu nahi da:

40 punturarte.

- Nazioartekotze potentziala:

40 punturarte.

- Etika berrikuntzan:

40 punturarte.

- Proiektu berritzailearen eragina eta dimentsioa eta ordezeko izan daitezken neurri txikiagoko alternatiben balorazioa (Proiektu berritzaileetan gainproportzioa ekiditea da helburua):

10 punturarte.

- Dagoeneko existitzen diren berrikuntza alternatibak kontuan eukitzea eta hauengan eta orohar izango duen eraginaren balorazioa. (eraginkortasuna eta eraikitzea oinarri dituen sormena):

10 punturarte.

- Desoreka sozialetan duen eraginaren balorazioa gainontzeko alternatibekin alderatuz gero:

10 punturarte.

- Proiektu berritzaileak giza menpekotasunarengain duen eraginaren balorazioa bestelako alternatibekin alderatuz gero (gizakiaren autonomia eta askatasuna bermatu nahi da):

10 punturarte.

Aurreko irizpideen arabera puntu gehien lortu dituzten proiektuen artean berdinketa egonez gero bakarrik hautsi beharko da berdinketa, honako irizpide honen arabera:

- Etika berrikuntzan

7. Konfidentzialtasuna, eta jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideak

Gipuzkoa Berritzen-ek erabateko konfidentzialtasuna izan behar du jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideak osa ditzaketen proiektuen elementuei edo aurkeztutako dokumentazioari dagokienez, eta ezin izango ditu horiei buruzko datuak edo informazioak ezagutarazi, partaideek berariaz baimentzen ez badute, dokumentu honetako 6.4.3 Oinarrian jasotzen denari kalterik egin gabe.

10 MP Sariaren ezaugarriak eta helburuak kontuan hartuta, aurkeztutako proiektuen jabetza intelektual eta industrialak egileei dagozkie, Gipuzkoa Berritzenen edo Innobasque-n alde inolako eskubiderik gordetzen ez dela.

Printzipioz, partaide guztiek ematen diote baimena Saria deitzen duen erakundeari, aurkeztutako proiektuen erakustaldi publiko bat egiteko, Saria esleitu eta hurrengo 6 hilabeteetan. Dena den, erakustaldi horretatik kanpo utziko dira saritu ez diren proiektuak, partaideek modu argian eta berariaz adierazi badute nahi hori 2. gutunazalaren («PROIEKTUA») kanpoaldean.

Erakustaldi hori partaide guztiei jakinaraziko zaie. Proiektuak argitalpen batean ere jar daitezke, eta egileen izenak adieraziko dira bertan, sariaren esleipendun ez diren eta anonimotua gordetzeko nahia adierazi duten egileenak salbu.

Partaideak izango da aurkeztutako dokumentazioan adierazitakoaren egiazkotasunaren erantzule bakarra, eta Gipuzkoa Berritzen ez dago, inolaz ere, egiazkotasun hori ikertzera edo frogatzera behartuta, nahiz eta beharrezko eta

egokitzat jotzen badu, egin ahal izango duen.

Gainera, Gipuzkoa Berritzenek ez du inolako erantzukizunik izango ustiatuko den ideiak edo partaideak aurkeztutako edozein dokumentuk hirugarren pertsonen eskubideak nolabait urratzen baditu, jabetza intelektualari, industrialari edo beste edonolakoari dagokionez.

8. Dokumentazioa itzultzea

Partaide guztiek dute aurkeztutako dokumentazioa itzul dakien eskatzeko eskubidea, dagokion aurkezpena bukatu ostean.

Ez bada hala egiten, deialdia egiten duen erakundeak dokumentazioa suntsitu edo artxibatu ahal izango du.

9. Ordaintzeko modua eta diru-horniduraren xedea

Saria osatzen duen diru-hornidura bertan parte hartu duten eta aukeratu dituzten partaideei ordainduko zaie, saria jakinarazi eta handik hilabeteko epean gehienez ere.

Ordainketa izendun txeke bidez egiaztatuko da.

Proiektu irabazle bat pertsona —fisiko edo juridiko— batek baino gehiagok aurkeztu badute, administrazio-dokumentazioan aurkeztutako dagokion Eranskinean adierazi duten proportzioan ordainduko zaio bakoitzari.

Diru-hornidura hori proiektuaren aplikazio praktikoan, gauzapenean edo abiarazpenean erabili behar du irabazleak, gutxienez zenbatekoaren % 50ean.

Horretarako, onuradunak dokumentazio bidez egiaztatu behar dio Gipuzkoa Berritzeni, Saria esleitu ondorengo 6 hilabeteko gehieneko epean eta Gipuzkoa Berritzenek egokitzat jotako moduan, proiektua gauzatuko duen eta egoitza soziala

Gipuzkoan izan behar duen erakundearen —jadanik badena edo berrikitan sortu dena— kapital sozialari eginiko ekarpena.

Sariak onuradun bat baino gehiago izanez gero, guztiek saria erakunde berari emateko betebeharra dute.

Aipatutako justifikazioa ez bada aurkezten, Sariaren diru-hornidura guztia itzuli behar da. Betebehar hori ez bada betetzen, Gipuzkoa Berritzenek eskubidea izango du, edo Saria guztiz itzul dadin eskatzeko, edo hura derrigorrez betearazteko, hala badagokio Jurisdikzio Arrunteko Auzitegi eta Epaitegien laguntzarekin.

Hori guztia berdin aplikatuko da, sari gehigarriak esleitzen badira.

10. Zerga-tratamendua.

10.1. Zeharkako zerga

Emandako saria ez da, inolaz ere, irabazleak GIPIIZKOA BERRITZENEn alde egindako zerbitzu baten ordainketa, beraz eragiketa horrek ez du zergarik ordaindu beharrik Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez.

10.2. Zerga zuzena

GIPIIZKOA BERRITZENEK dagokion atxikipena egingo du, PFEZaren edo Sozietateen gaineko Zergaren arautegiak sarietarako xedatzen duenaren arabera.

Donostian, 2011ko azaroaren ... (a)n.

1. ERANSKINA: IDENTIFIKAZIOA
PERTSONA FISIKOENTZAKO EREDUA

Jakinik Gipuzkoa Berritzeneke sari baterako, 10 MP Saria deritzonerako deia egin duela, parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela eta Saria arautzen duten Oinarriak ezagutzen dituztela adierazten dute, eta beren partaidetza onar dadin eskatzen. Horretarako, honako dokumentazio hau aurkezten dute:

1. Identifikazio-eranskin hau, pertsona fisikoa den partaideak edo, zenbait pertsona batera aurkezten badira, pertsona fisikoak diren partaide guztiek jatorrizkoa sinatuta.
2. Aipatu Sariaren Oinarri arautzaileek eskatzen dituzten dokumentu guztiak.

PARTAIDEAK:

Izena:.....Nortasun-agiria:.....

Izena:.....Nortasun-agiria:.....

(...)

(Zenbait pertsona fisikok batera parte hartzen duten kasurako:

Proiektuko partaide bakoitzaren partaidetza-kuota, guztien adostasunez finkatuta, hau da:

Izena:....., % ...

Izena:....., % ...

(...)

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK:

Izena:.....

Helbidea:Posta-

kodea:.....

Kalea/Plaza:

Telefono finkoa:.....

Sakelako telefonoa:.....

Faxa:.....

Posta elektronikoa:.....

Tokia, data eta parte hartzen duten pertsona fisiko guztien sinadura

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK:

Izena:.....

Helbidea:Posta-

kodea:.....

Kalea/Plaza:

Telefono finkoa:.....

Sakelako telefonoa:.....

Faxa:.....

Posta elektronikoa:.....

.....

Tokia, data eta pertsona juridiko parte-hartzaile guztien ordezkarien sinadura

3. ERANSKINA: IDENTIFIKAZIOA
PERTSONA FISIKOEN ETA PERTSONA JURIDIKOEN (ENPRESAK)
TALDEETARAKO EREDU MISTOA

Jakinik Gipuzkoa Berritzeneke sari baterako, 10 MP Saria deritzonerako deia egin duela, parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela eta Saria arautzen duten Oinarriak ezagutzen dituztela adierazten dute, eta beren partaidetza onar dadin eskatzen. Horretarako, honako dokumentazio hau aurkezten dute:

1. Identifikazio-eranskin hau, partaide guztiek, hau da, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoen ordezkariak, jatorrizkoa sinatuta.
2. Aipatu Sariaren Oinarri arautzaileak eskatzen dituzten dokumentu guztiak.

PARTAIDEAK:

1. pertsona juridikoa (enpresa):.....

IFK:.....

Ordezkaria: Izena:.....Nortasun-

agiria:.....

Pertsona fisikoa: Izena:..... Nortasun-

agiria:.....

(...)

Proiektuko partaide bakoitzaren partaidetza-kuota, guztien adostasunez finkatuta, hau da:

1. pertsona juridikoa (enpresa):....., % ...

Pertsona fisikoaren izena:....., %

(...)

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK:

Izena:.....

Helbidea:Posta-
kodea:.....
Kalea/Plaza:
Telefono finkoa:.....
Sakelako telefonoa:.....
Faxa:.....
Posta elektronikoa:.....
.....

Tokia, data eta pertsona fisiko parte-hartzaile guztien ordezkarien eta pertsona juridiko
parte-hartzaile guztien ordezkarien sinadura